

XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA SAILA

2256

AGINDUA, 2026ko apirilaren 20koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez zerrendako hautagaiei ikasturte-hasieran lanpostuak esleitzeko prozedura arautzen baita aldi baterako irakasleen beharrak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan.

Ikasturte bakoitzaren hasieran, irakasle-beharrak planifikatzeko eta identifikatzeko prozesu batzuk egin behar dira; eta, horretarako, langileak kudeatzeko prozedura batzuk garatu behar dira, eta horien guztien amaiera ikasturte hasierako esleipena da. Bertan, irakasleen lanpostuak esleitzen zaizkie behin betiko destinorik ez duten edo beteko ez duten karrerako funtzionarioei, hautaketa-prozesuetan hautatuak izan direnei eta ordezkogaien zerrendan daudenei. Prozedura honen bidez esleitzen diren lanpostuen iraupena ikasturte osokoa izango dela aurreikusten da, eta plaza horiek titularrak okupatuta ez egotea.

Azken urteotan, urrats berriak egin dira ikasturte-hasierako esleipenean kudeaketa eraginkorra goa eta egokiagoa lortzeko, bai eta, oro har, sistemaren maila eta eremu guztietan sortzen diren langile-premiei erantzuteko ere.

Oraingo prozesuak esleipen-fase bakarra du, eta lehentasun-ordena honen arabera egingo da: lehenik eta behin, behin betiko destinorik ez duten edo beteko ez duten karrerako funtzionarioek izango dute esleipen-lehentasuna; bigarrenik, hautaketa-prozesuetan hautatutako pertsonak izango dute esleipen-lehentasuna; azkenik, gainerako lanpostuak ordezkapen-zerrendetako langileei esleituko zaizkie.

Gai horri dagokionez, hainbat aginduk arautzen dituzte ikasturte-hasierako lanpostu hutsen esleipena, bai eta horiek gauzatzeko kudeaketa-sistemak ere, adierazitako kolektibo bakoitzerako:

Ildo horretan, aipatu behar da 2012ko ekainaren 6ko Agindua; horren bidez, ikasturte hasierako esleipen-prozesua arautzeko da, behin betiko destinorik ez duten edo betetzen ez duten karrerako irakasle funtzionarioei edo lan legepeko irakasle finkoei dagokienez. Era berean, aipatu behar da 2011ko uztailaren 15eko Agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, ikasturte hasierako esleipen-prozesua arautzeko dena, irakasleen kidegoetan sartzeko edo kidego horietara heltzeko prozesuetako praktika-aldia egin behar duten pertsonen, eta irakasleen ordezkogaien zerrendako kideei dagokienez. Azkenik, 2022ko ekainaren 16ko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko zerrendako hautagaiei ikasturte-hasieran lanpostuak esleitzeko prozedura arautzen duena. Agindu hori 2023ko otsailaren 24ko Aginduaren bidez aldatu zen, eta, ondoren, 2024ko ekainaren 11ko Aginduaren bidez.

2025eko martxoaren 27an, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salako Lehen Atalak epaia eman zuen 0000071/2025 zenbakiarekin erregistratutako eta prozedura arruntaren bidez jarraitutako errekurtsioan. Errekurtsio horretan, 2022ko ekainaren 16ko Agindua aurkaratzen da, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan aldi baterako irakasleen beharrak betetzeko zerrendako izangaiei ikasturte-hasiera esleitzeko prozedura. Horren arabera, baliogabetu egiten da 2022ko ekainaren 16ko Agindua.

I. kapituluak, hautatzeko eta esleitzeko prozedura zehazten da, fase bakar batean egituratuta. Prozedura errazte horrek aukera ematen du esleipenak ohikoa baino epe laburragoan egiteko eta, horrela, ikasturte-hasierako lanpostuak eta estaldura-premiak esleitzen dituen behin betiko ebazpena aurreratu ahal izateko. Horrela, ikastetxeek eta prozesuan eskaintzen dituzten lanpostuak eta estaldura-premien esleipendunek ahalik eta lasterren jakingo dute hurrengo ikasturterako destinoa. Horrek bermatzen du zuzendaritzek hobeto kudeatuko dituztela giza baliabideak ikastetxean, eta prozesu horretan parte hartzen duten langileen lan-egoera hobetuko dela; izan ere, ikasturte hasierara arte ez dute itxaron beharko haien destinoa ezagutzeko.

Parte hartzeko eskabidea inprimaki elektronikoko baten bidez formalizatuko da, eta pertsona bakoitzak Hezigunea ingurunetik eskuratu ahal izango du. Parte-hartzaile bakoitzak eskaintza pertsonalizatua jasoko du, bere egoeraren arabera aukera ditzakeen 1. kideatasuneko lanpostuak eta beharrak betetzeko, eta lehentasun-ordenaren arabera ordenatu beharko ditu.

Parte-hartzea borondatezkoa izango da, eta, beraz, ez da lanposturik esleitu, ezta nahitaezko estaldura-premiarik ere. Gainera, ordezko gaien zerrendak osatzen dituzten langileen lurraldea ez da mugatuko, eta Euskal Autonomia Erkidegoko edozein lurraldetako lanpostuak edo lanpostuak betetzeko beharrak aukeratu ahal izango dituzte. Eskabideak baliozkotu eta osatu ondoren eta gerta litezkeen akatsak konpondu ondoren esleitzen da lanpostua, fase bakoitzean langileak antolatzeke eta lanpostuak esleitzeko jarraibide espezifikoak aplikatuz.

III. kapituluak prozeduraren instrukzioa garatzen du: hasteko, organo eskuduna eta argitalpenei buruzko guztia zehazten du; IV. kapituluak, berriz, behin-behineko nahiz behin betiko esleipena arautzen du, bai eta izendapena edo kontratazioa, lanpostuaz jabetzea eta uko egiteak ere.

Testuak xedapen gehigarri bat jasotzen du, eta, horren bidez, Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzari ahalmena ematen zaio agindu hori garatzeko jarraibideak eman ditzan.

Hori guztia dela eta, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

PROZEDURA ETA DEIALDIA

1. artikulua.– Xedea.

1.– Honako hau da agindu honen xedea: zerrendako hautagaiei lanpostuak aukeratzeko eta esleitzeko prozedura arautzea, aldi baterako irakasleen beharrak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan.

2.– Prozedura hori urtean behin eta ikasturtea hasi aurretik egingo da.

3.– Lanpostuak esleitzeko prozesuarekin batera gauzatuko da prozedura, karrerako irakasle funtzionarioei eta behin betiko destinorik ez duten edo beteko ez duten lan-kontratuko langile finkoei dagokienez, bai eta irakasleen kidegoetan sartzeko edo sartzeko prozesuetako praktikaldia egin behar duten pertsonen dagokienez ere. Langile horien esleipenei dagokienez, kolektibo bakoitzaren arauetan xedatutakoa bete beharko da, eta, nolana ere, lanpostuak esleitzeko edo estaldura-premiak betetzeko lehentasuna izango dute irakasleen aldi baterako beharrak estaltzeko hautagaien zerrendak osatzen dituzten langileen aurretik.

4.– Irakasleen zerrendak osatzen dituzten hautagaiantzako lanpostuen eta estaldura-premien esleipena Agindu honen 9. artikuluan ezarritako lehentasun-irizpideen arabera egingo da.

2. artikulua.– Deialdia.

1.– Prozedura ofizioz eta urtero deituko da lanpostuak esleitzeko prozesuarekin batera, behin betiko destinorik ez duten edo beteko ez duten karrerako irakasle funtzionarioei eta lan-kontratudun langile finkoei dagokienez, bai eta irakasleen kidegoetan sartzeko edo kidego horietara heltzeko prozesuetako praktikaldia egin behar duten pertsonen dagokienez ere, Hezkuntza Saileko langileak kudeatzeko organo eskudunaren titularraren ebazpena argitaratu ondoren. Ebazpen horrek prozedurari hasiera emango dio eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren webgune ofizialean argitaratuko da.

2.– Prozedura deitzen duen ebazpenak honako hauek zehaztuko ditu:

a) Parte hartzeko eskaera aurkezteko epea.

b) Instrukzio-izapideak egiteko, esleipenaren behin-behineko ebazpenaren aurkako erreklamazioak aurkezteko, lanpostuen esleipena eta dagokion izendapenak eta kontratazioak egiteko datak.

c) Esleitutako lanpostuez jabetzeko eguna.

3.– Ahal dela, abuztua baino lehen amaituko da ikasturte-hasierako esleipen-prozedura.

3. artikulua.– Prozeduran sartzen diren lanpostuak eta estaldura-premiak.

1.– Eskaerak aurkezteko epea hasi baino lehen eta deialdian ezarritako egunean argitaratuko dira eskainitako lanpostuak eta estaldura-premiak, eta horien ezaugarriak.

2.– Prozeduran, oro har, jardunaldi erdiko edo gehiagoko estaldura-premiak eta lanpostu hutsak edo titularrak betetzen ez dituenak sartuko dira, baldin eta aurreikusitako betetze-beharra ikasturte osorako bada, ikasturteko abuztuaren 31ra arte hain zuzen ere.

II. KAPITULUA

ESLEIPEN-FASE BAKARRA

4. artikulua.– Borondatez parte hartzea.

1.– Esleipenean, borondatez parte hartuko dute ikasturte-hasierako prozesuan «IKHA-n parte har dezaket» egoeran dauden pertsona guztiek, eta hori horretarako ezarritako epean egiaztatu ahal izango da. Epe hori urtero zehaztuko da ikasturte hasierako esleipen-prozesuaren deialdia egiten duen ebazpenarekin batera argitaratzen den egutegian. Aldi baterako beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda orokorrean 1. kidetasuna duten pertsonen soilik parte hartu ahal izango dute.

Eskabideak aurkezteko epean, parte-hartzaileek zerrenda pertsonalizatua izango dute, eta, bertan eskatu ahal dituzten lanpostu eta estaldura-premiak adieraziko dira, lanpostuen ezaugarrien arabera eta hautagaiak prozesuan parte hartzeko gaitzen duen egoeran dauden zerrenden arabera. Lanpostuen eta estaldura-premien eskaintzan, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetako plazak aukeratu ahal izango dituzte beren borondatez, eta horrek ez du ekarriko birbaremazioan agertzen diren lurralde- eta lanaldi-aukerak aldatzea.

2.– Araututako atzerriko hizkuntzan ematea eskatzen duen lanpostu edo estaldura-premia bat betetzeko, lanpostuari edo betetzeko beharrari buruzko baldintza orokorrak betetzeaz gain, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuaren 2. artikuluan jasotako betekizunak egiaztatu beharko dira, edo indarrean dagoen araudi aplikagarria, ordu-kopuru txikiena duen hizkuntzari dagokionez (73/2012 Dekretua, maiatzaren 15ekoa, Atzerriko hizkuntzen titulu eta ziurtagiriei buruzkoa Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikastetxe publiko eta pribatuetan irakasgaiak edo irakats- arloak atzerriko hizkuntzetan emateko hizkuntza gaitasunaren betekizunak ezartzen dituena).

5. artikulua.– Esleipenean jasotzen diren lanpostuei edo estaldura-premiei buruzko informazioa.

3. artikuluan aipatzen diren lanpostuen egituran, gutxienez, honako informazio hau hartuko da kontuan:

- a) Irakaskuntzako kidegoaren izena.
- b) Irakaskuntza-espezialitateen izena, hala badagokio.
- c) Lanpostuaren kodea.
- d) Hizkuntza-eskakizuna.
- e) Dedikazio-ehunekoa.
- f) Ikastetxearen izena.
- g) Udalerriaren izena.

Eskainitako lanpostuak eta estaldura-premiak argitaratzen diren unean dagoen informazio osagarria argitaratu ahal izango da, baina ez loteslea, erreferentzia hobea izateko. Informazioa izanez gero, lanpostuek edo estaldura-premiei tutoretza-lana egitea dakarren edo gela egonkor batean eman nahi den zehaztuko da.

III. KAPITULUA

PROZEDURAREN INSTRUKZIOA

6. artikulua.– Organo eskuduna.

Langileak kudeatzeko zuzendaritzak egingo du prozeduraren instrukzioa, eta lurralde-ordezkaritzei dagokien zerbitzuek hartuko dute parte.

7. artikulua.– Argitalpenak.

1.– Deialdia, eranskinekin batera, eta lanpostuak eta estaldura-premiak esleitzeko behin-behineko eta behin betiko ebazpenak Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuko dira, bai eta prozedurarako deialdia egiten duen ebazpenean xedatzen diren bitarteko gehigarrietan ere.

2.– Parte-hartzaile bakoitzak prozesuaren parte hartzeari buruzko informazioa eskuragarri izango du.

8. artikulua.– Eskaerak aurkeztea.

1.– Lanpostuen eta estaldura-premien eskera deialdian ezarritako epearen barruan egin beharko da, eta edozein unetan aldatu ahal izango da eskabideak aurkezteko epea irekita dagoen bitartean. Lerro bakoitzaren hasieran agertzen den eskaera-zenbakiak zehaztuko du egindako eskaeren artean hautatzeko lehentasuna. Sartutako datuak zirriborro-formatuan inprimatu ahal izango dira.

2.– Eskabidea automatikoki itxiko da deialdian ezarritako epea amaitzen den unean; beraz, ordura arte grabatutakoa hartuko da kontuan. Grabatutako behin betiko datuak behin betiko formatuan inprimatu ahal izango dira.

3.– Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, ezingo da aldaketarik egin, eta parte-hartzaile bakoitzak inprimaki bat eskuratu ahal izango du, behin betiko erregistratutako aukera eta eskaerekin.

IV. KAPITULUA

ESLEIPENA, IZENDAPENA EDO KONTRATAZIOA, JABETZA HARTZEA ETA KARGU-UZTEA

9. artikulua.– Lanpostuak esleitzeko behin-behineko eta behin betiko ebazpena.

1.– Deialdia egin duen organoak ebazpena emango du, 2. artikuluan ezarritako epeetan, kasuan kasuko lanpostuen eta estaldura-premien esleipena behin-behinekoz onartzeko, honako arau hauen arabera:

a) Parte hartzaile bakoitzak eskabidean ezarritako lanpostuen eta estaldura-premien lehentasun-ordena.

b) Argitaratutako urteko azken birbaremazio-prozesutik ateratzen den hautagaien zerrendako posizioa.

2.– Lanpostua edo lanpostua betetzeko beharrari ezin zaio uko egin. Lanpostuaren esleipenari uko egiten bazaio, irakasleen aldi baterako beharrak estaltzeko hautagaien zerrendatik kanpo geratuko da, 11. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3.– Deialdian zehazten den epean, erreklamazioa aurkeztu ahal izango da behin-behineko esleipen-ebazpenaren aurka.

4.– Deialdian zehaztutako erreklamazio-epea igarotakoan, behin betiko ebazpena emango da deialdian jasotako lanpostu-esleipenak onartzeko. Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsioa egin ahalko da hilabeteko epean.

10. artikulua.– Lanpostuaren izendapena eta jabetza hartzea.

1.– Lanpostu baten edo estaldura-premiako esleipenduna izendatuko edo kontratatuko da, esleitutako lanpostu jakin bati edo estaldura-premia horri dagokion kidego eta espezialitateko eginkizunak betetzeko, eta haien identifikazioa izendapenean edo kontratuan sartuko da.

2.– Izendatutako pertsonak esleitutako lanpostuaren edo estaldura-premiaren jabetza hartu beharko du esleipen-ebazpenean adierazten den datan.

3.– Aldi baterako ezintasun-egoeran egoteagatik iraileko lehen lanegunean lanpostuaz jabetzerik ez badu, esleitutako plaza erreserbatzeko eskubidea izango du, hala eskatzen eta egiaztatzen badu, esleipenari dagokion ikasturteko azaroaren hogeita hamarrera arte.

4.– Iraileko lehen lanegunean ezin bada lanpostuaz jabetu honako arrazoi hauetako batean egoteagatik, esleitutako plaza erreserbatzeko eskubidea izango du, hala eskatzen eta egiaztatzen badu, arrazoi hori amaitu arte:

a) Lan-istripuek eta lanbide-gaixotasunek eragindako aldi baterako ezintasuna.

b) Haurdunaldiko arriskua edo arriskuko haurdunaldia.

c) Jaiotzagatiko eta adingabearen zaintzagatiko prestazioa jasotzen egotea, edo, halakorik ezean, jaiotzagatiko babes-egoeran egotea, prestazioa jasotzeko beharrezkoak diren kotizazio-betekizunak betetzen ez direnean.

d) 3 urtetik beherako seme-alabak zaintzea.

e) Genero-indarkeriaren edo sexu-indarkeriaren, pertsonen salerosketaren, terrorismoaren, jazarpenaren edo behar bezala egiaztatutako beste edozein indarkeria-motaren biktima izatearen kausak.

f) Karrerako funtzionarioentzako zerbitzu berezien deklarazioa dakarren kasuren batean egotea.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako aldi baterako irakasleen hautaketa eta kudeaketa arautzen duen indarreko araudian jasotako beste edozein egoera babestu.

11. artikulua.– Uko egitea.

1.– Hurrengo 2. apartatuan aurreikusitako kasuan izan ezik, esleitutako lanpostuari zein estaldura-premiari eta, hala badagokio, egindako izendapenari edo kontratazioari uko egitea justifikatu gabetzat joko da.

Lanpostuaz jabetzeko egunean, ikastetxean agertzen ez den pertsona izendatuak edo kontratatuak izendapenari edo kontratuari uko egiten diola ulertuko da.

2.– Ezin zaio uko egin esleitutako lanpostuetan jarduteari. Hala ere, uko egitea onartu ahal izango da, baldin eta ustekabeko eta gerora sortutako egoera berrien ondorio bada, eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren eta lanpostuaz jabetzeko eguna baino lehen agertu badira, eta kausa hauetako bat badute:

a) Askatasuna kentzea, kondena-epaia eman arte.

b) Hezkuntza-sistemarekin zuzenean lotutako ikasketa-beka, beka edo laguntzak izatea.

c) Edozein motatako lan-kontratua edo izendapena izatea administrazio publiko batean, edo Gizarte Segurantzaren autonomo gisa alta emanda egotea.

d) Atzerrian GKE batentzat lanean aritzea.

Esleipenari uko egitea justifikatutzat jotzeko, ezinbestekoa izango da uko egitea oinarritzen duen kasua uneko urteko irailaren 1a baino lehen jakinarazten eta egiaztatzen bada.

12. artikulua.– Izendatutako edo kontratatutako pertsona kargugabetzea.

1.– Bitarteko funtzionarioen edo kontratatutako pertsonaren kargugabetzea honako kausa hauetako bategatik gertatuko da:

a) Justifikatutako uko egitea.

b) Justifikatu gabeko uko egitea.

c) Aldi baterako ordezkaturako pertsona ordezkapenaren xede diren eginkizunetan hastea.

d) Lanpostua karrerako funtzionarioei behin-behinean edo behin betiko adskribatzea.

e) Lanpostua praktiketako funtzionarioei adskribatzea.

f) Lanpostua desagerraraztea.

g) Bitarteko langile funtzionarioen araudian jasotako beste edozein.

2.– Iraupen minimo jakin bat zenbatesten zaion eta hutsik ez dagoen lanpostu baterako izendatutako edo kontratatutako pertsona bat aldezturik kanporatzen bada lanpostutik erreserba duen funtzionarioa edo lan-legepekoa lanean hasteagatik, arauzko estalduragatik edo esleipena egin aurretik ezagutzen ez den beste edozein kausarengatik, ez da kalte-ordainik edo eskubiderik sortuko kalkulaturako gutxieneko denbora amaitu arte geratzen den denbora.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA.– Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza gaitzea.

Agindu honen bidez, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza gaitzen da, agindu hau garatzeko beharrezko diren jarraibideak emateko, dagokion ebazpenaren bidez, alderdi sozialarekin negoziatu ondoren.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA.– Indarrean jartzea.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 20a.

Hezkuntzako sailburua,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.